



## BERGARAKO BIRA MUGARRIZ MUGARRI

Betidanik egon da Bergarako mendizaleen artean herriko mugarrien inguruan bira egiteko ohitura. Horregatik hainbat mugarrien kokapena jakina zen eta bertara hurbiltzeko bideak ere ezagunak. Baina beste mugarri asko ez ziren ezagutu ere egiten, beste batzuk sasi artetik erreskatatu dira, eta azkenik, beste batzuk galdutzat eman dira pinudiak garbitzerakoan edota pistak eraikitzerakoan lurperatuak izan direlako.

2009an POL-POLeke mendizale talde batek "MUGARRIEN IBILBIDEA" izan nahi zuen egitasmoa jarri zuen abian. Horretarako 1939an Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zuen "akta" (*Acta de la operacion realizada para reconocer la linea término y señalar los mojones comunes a los términos de Vergara y de -----*) oinarritzat hartuz, mugarri guztiak aurkitzeari eta identifikatzeari ekin zion.

Hiru urteko lanen ondoren esan dezakegu 1939ko "aktan" agertzen ziren **113** mugarrietatik **87** topatu direla, gehi beste **2** aktan ez zirenak azaltzen, eta mugarri guztietara iristen den ibilbide bat zehaztu dela.

Bergarako Bira (BB) ibilbidearen inguruan bitxikeria batzuk aipatuko ditugu:

- ✓ **87** kilometroko ibilbidea da, bost-sei etapetan banatuta.
- ✓ **4.500** metroko desnibel metatua du.
- ✓ **116** mugarri-puntxo eta **90** mugarri bisita daitezke.
- ✓ Mugarrietan dagoen inskripzio zaharrena **1764** urtekoa da, 4. etapen, Santutzueta (28garrena) mugarri ondoan.

Leiho digital honetan, ibilbide guztiaren mapa orokorra eta etapa bakoitzari buruzko zehaztasun hauek aurkituko dituzue:

- Etapa bakoitzaren mapa.
- Euskaraz idatzitako etapa bakoitzaren deskribapena.
- GPS-rako track-a.
- Mugarri guztien eta ibilbidearen argazki bilduma, etapetan banatuta.
- 1939ko Aktako mugarri guztien datuen transkripzioa.
- Mugarri guztien zerrenda bat, bakoitzaren datuekin.

Bukatzeko, jakin ezazue zenbait mugarri topatzeko eta ibilbidea egiteko garairik aproposena negua dela, beste edozein urtarotan sasi eta larrez beteta izaten direlako.